

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OIARTZUNGO UDALA

2024. urteko enplegu publikoaren eskaintza

Oiartzungo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko ekainaren 24an, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuen:

Lehen. 2024. urteari dagokion Enplegu Publikoaren Eskaintza aldatzea, Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko otsailaren 2ko bilkuran onartua (2024ko otsailaren 12ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 30. zk.), honela: ur zerbitzuko betekizun anitzetarako ofiziala lanpostuari dagokion administrazio bereziko zerbitzu bereziak azpieskalako eta ofizioetako langile motako plaza kentzea, hornidura prozesuaren bidez bete dadin.

Bigarrena. Honako iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratzea, baita udalaren egoitza elektronikoan ere.

Erabakia behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko Oiartzungo Tokiko Gobernu Batzarrari hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte.

Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Oiartzun, 2025eko ekainaren 25a.—Joana Mendiboure, alkatea. (5012)

AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

Oferta de empleo público del año 2024

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Oiartzun, en sesión celebrada el 24 de junio de 2025, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

Primero. Modificar la Oferta de Empleo Público correspondiente al año 2024, aprobada por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento en su sesión de 2 de febrero de 2024 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 30, de 12 de febrero de 2024), en el sentido de suprimir la plaza de operario de oficios y servicios especiales de la subescala de servicios especiales correspondiente al puesto de Oficial de servicios múltiples de agua, para su provisión mediante el proceso de provisión.

Segundo. Publicar el presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el *Boletín Oficial del País Vasco*, así como en la sede electrónica del Ayuntamiento.

La decisión es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo, se podrá interponer recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio. En este caso, no se podrá interponer el recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el recurso de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello, sin perjuicio de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Oiartzun, a 25 de junio de 2025.—La alcaldesa, Joana Mendiboure. (5012)